


M_{LH4}

2020-2021



Zuzenketa koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea/Gela:

Herria:

Data:

**Matematika
gaitasuna**

Lehen Hezkuntzako 4.a

Baloiak

Baloia hainbat kiroletan erabiltzen da. Kirol bakoitzak baloi mota bat du, hainbat ezaugarriekin: pisua, forma...



1. Begira itzazu baloi hauek. Aukeratu erantzun zuzena.

- A. Hiru baloiek esfera forma dute, eta batek pentagonoak ditu.
- B. Hiru baloiek esfera forma dute, eta hirurek pentagonoak dituzte.
- C. **Bi baloik esfera forma dute eta horietako batek pentagonoak ditu.**
- D. Bi baloik esfera forma dute, eta biek pentagonoak dituzte.



	1. galderaren analisia
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatua	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

2. Saskibaloiko baloien pisua da 567 eta 650 g artekoa. Entrenatzaileak hiru baloi berri ekarri ditu entrenamendura. Guztira 2 kg baino gehiago pisatzen dutela aipatu du.

Egia al da entrenatzaileak esandakoa?**Ez**.....

Zergatik?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<p>“Ez” erantzun du, eta ongi arrazoitu du.</p> <p>Izan daitezkeen arrazoibideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 650 bider 3 1 950 g delako eta ez delako 2 kg-ra iristen. - 3 baloien gehienezko pisua 1 950 g-koa delako. - Hiru baloien pisuaren batura 2 kg baino gutxiago delako. -

2. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Arrazoitzea eta hausnartzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

3. Luka eta Paula eskubaloiko eta futboleko baloiak pisatzen ari dira. Ikusi irudian egin dituzten bi pisaldiak.



Zenbat gramo pisatzen ditu futboleko baloiak? Idatz itzazu eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

A aukera

$$1\ 200 - 820 = 380\text{ g}$$

$$820 - 380 = 440\text{ g}$$

B aukera

$$1\ 200 - 820 = 380\text{ g}$$

$$380 + 380 = 760\text{ g}$$

$$1\ 200 - 760 = 440\text{ g}$$

Futboleko baloiak pisatzen ditu.....**440**.....gramo.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

3. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

4. Gorputz Hezkuntzako irakasleak erosi ditu futboleko, eskubaloiko eta saskibaloiko baloiak.

Baloiak	Zirkunferentziaren luzera	Pisua	Prezioa
Futbola	68 eta 70 cm artean	410 eta 450 g artean	125 €
Eskubaloia	58 eta 60 cm artean	425 eta 475 g artean	18 €
Saskibaloia	68 eta 73 cm artean	567 eta 650 g artean	52 €

Irakasleak ikasleei esan die erosi dituela:

- Bi baloi 59 cm-ko zirkunferentzia dutenak.
- Baloi bat 415 g-ko pisua duena.
- Hiru baloi 72 cm-ko zirkunferentzia dutenak.

Zenbat euro gastatu ditu? Idatz itzazu eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$18 \times 2 = 36$$

$$52 \times 3 = 156$$


$$36 + 156 + 125 = 317 \text{ euro}$$

Irakasleak gastatu ditu.....**317**.....euro.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

4. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

5. Begiratu grafiko honi, eta osatu taula.



	Egia	Gezurra
A. Saldutako saskibaloiko baloiak dira boleibolekoak eta eskubaloikoak batera adina.	X	
B. Futboleko baloiak saldu dira errugbikoak baino hiru aldiz gehiago.	X	
C. Futboleko baloiak saldu dira eskubaloikoak baino 25 aldiz gehiago.		X
D. Saldutako errugbiko baloiak dira eskubaloikoen erdiak.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzen.

5. galderaren analisisa	
Edukiak	<i>Estatistika eta probabilitatea</i>
Prozesu ebaluatua	<i>Arrazoitzea eta hausnartzea</i>
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

6. Bi lagunek saskibaloia partida bat jokatu dute, eta batek 36 puntu lortu ditu. Esan zein adierazpen matematikok adierazten dituen lortutako 36 puntu horiek.

- A. $2 \times 3 \times 3 \times 2 - 2$
 B. $3 \times 5 \times 2 + 5$
 C. $4 \times 4 \times 2 + 4$
 D. $2 \times 2 \times 5 \times 2 - 3$



6. galderaren analisisa	
Edukiak	<i>Zenbakiak</i>
Prozesu ebaluatua	<i>Aplikatzea eta aztertzea</i>
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

Nafarroako Bardea

Jende asko joaten da Bardeara hango paisaiaz gozatzera. Artzain batzuek ere beren artaldeak eramaten dituzte hango larreetara.



7. Begira ezazu Bardeako mendi honen irudia. Zer gorputz geometrikoren antza du?


- A. Piramidea
- B. Zilindroa
- C. Prisma
- D. **Konoa**






7. galderaren analisisa

Edukiak	<i>Geometria</i>
Prozesu ebaluatua	<i>Ezagutzea eta erreproduzitzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

8. Amaiak bizikletaz egin du irudian ageri den ibilbidea. Puntu gorritik atera da, geziek adierazitako bideari jarraitu dio, eta hasierako puntura itzuli da.



	Irteera eta helmuga	
	Bide grisa	24 km eta 850 m
	Bide horia	10 km eta 500 m

Zenbat metro egin ditu Amaiak? Idatz itzazu eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. Hainbat metodo baliozko, adibidez:

$$10 \text{ km } 500 \text{ m} = 10 \text{ } 500 \text{ m}$$

$$24 \text{ km } 850 \text{ m} = 24 \text{ } 850 \text{ m}$$

$$10 \text{ } 500 + 24 \text{ } 850 + 10 \text{ } 500 = 45 \text{ } 850 \text{ m}$$

Amaiak**45 850**.....metro egin ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

8. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

9. Bide grisak 24 km 850 m neurtzen ditu. Amaiak 20 minutu behar izan ditu 5 kilometro egiteko. Beti abiadura berean eta gelditu gabe ibili bada, zenbat denbora behar izan du ibilbide grisa egiteko?

- A. Ordu bat baino gutxiago
- B. Ordu bat
- C. Ordu bat baino gehiago eta bi ordu baino gutxiago
- D. Bi ordu edo gehiago

9. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

10. Begiratu Amaiaren bizikletaren irudiari. Zein triangelu mota da gorritz markatua dagoena?

- A. Eskalenoa eta kamutsa
- B. Eskalenoa eta zuzena
- C. Isoszelea eta kamutsa
- D. Isoszelea eta zuzena



10. galderaren analisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatua	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia


11. Abeltzainek Bardeako larreak arobetxa ditzakete irailaren 18tik azaroaren 30era arte. Zenbat egun dira denera?

- A. 42 egun
- B. 43 egun
- C. 73 egun
- D. **74 egun**



11. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzeta eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

12. Hurrengo zenbaki-lerroan gezi bat ageri da, eta horrek adierazten du zenbat ardi dauden Pelloren artaldean. Zenbat ardi ditu? Idatzi zenbakia lauki morean.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Ongi idatzi badu 920.

12. galderaren analisia


Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Irekia

13. Pelloren ilobak urdinez marraztu du aitonaren txakurra, eta horren irudi simetrikoa gorritz. Aukeratu erantzun zuzena.




- A. A marrazkia
- B. **B marrazkia**
- C. C marrazkia
- D. D marrazkia


A marrazkia




B marrazkia



C marrazkia



D marrazkia



13. galderaren analisia

Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatua	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

- 14.** Miguelen artaldean 776 ardi daude. Artaldearen laurdena saltzeko asmoa du. Ardi bakoitzeko 85 euro ordainduko dizkiote.

Zenbat euro jasoko ditu Miguelek? Idatz itzazu eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$776 : 4 = 194$$

$$194 \times 85 = 16\,490 \text{ euro}$$

Miguelek jasoko ditu.....**16 490**.....euro.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite bat egin du.
2	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

14. galderaren analisisa

Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

- 15.** Paula eta bere gurasoak goizean Bardean izan dira, eta arratsaldean Olivako monasterioa bisitatu dute. Begiratu argazki hau.

Aukeratu erantzun zuzena:

- A. Zutabeak ebakitzailak dira.
- B. Zutabeak perpendikularrak dira.
- C. Zutabeak zeharrak dira.
- D. **Zutabeak paraleloak dira.**



15. galderaren analisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatua	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

16. Bardean 76 709 turista izan ziren 2018an.

Pertsona kopurua kontuan hartuz, eta aukeratu erantzun zuzena.

- A. $7 \text{ HM} + 6 \text{ M} + 7 \text{ E} + 9 \text{ H}$
- B. 76 710 zenbakiaren hurrengoa da
- C. $(7 \times 10\,000) + (6 \times 1\,000) + (7 \times 100) + (9 \times 1)$
- D. Hirurogeita hamasei mila eta hirurogeita hemeretzi

16. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Ezagutzea eta erreproduzitzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia







17. Ikasle batzuk Bardean izan dira. Koadernoan idatzi dute zenbat animalia ikusi dituzten ibilaldian zehar.

Zein grafikok adierazten ditu ongi koadernoan jasotako datuak?

- A. A grafikoa
- B. B grafikoa
- C. C grafikoa
- D. D grafikoa

ANIMALIA KOPURUA	
Barraskiloak	IIII IIII II
Untxiak	IIII IIII
Sugandilak	IIII II
Putreak	IIII IIII I
Matxinsaltoak	IIII IIII IIII III



17. galderaren analisia

Edukiak	<i>Estatistika eta probabilitatea</i>
Prozesu ebaluatua	<i>Aplikatzea eta aztertzea</i>
Puntuaziorik handiena	<i>1</i>
Galderaren zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

18. Bardean egin duten ibilaldian pinuak landatzen ari direla ikusi dute. Asmatu zenbat pinu landatuko dituzten, pista hauei jarraituz:

- Hiru zifra ditu eta zenbaki bikoitia da.
- Zifra guztien batura bost da.
- Ehunekoen zifra eta unitateen zifra berdinak dira.



Idatz ezazu laukitxo bakoitzean dagokion zifra.

Landatuko dituzte



pinu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena: 212 .

18. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Arrazoitzea eta hausnartzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

19. Bi ikasle ari dira paseora eraman dituzten kantinplorak konparatzen. Begiratu irudiari.

Zer edukiera du kantinplora gorriak?

- A. 75 cl
- B. 100 cl
- C. 750 cl
- D. 1 000 cl



19. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

20. Julen eta Miren barraskiloak biltzen ari dira Bardea inguruan. Mirenek 147 barraskilo bildu ditu, eta esan du Julenek baino 68 barraskilo gehiago bildu dituela.



Zenbat barraskilo bildu dituzte bien artean? Idatz itzazu eragiketak eta soluzioa.

Egin beharreko kalkuluak. *Hainbat metodo baliozko, adibidez:*

$$147 - 68 = 79$$

$$147 + 79 = 226$$

Bien artean bildu dituzte.....**226**.....barraskilo.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra edo osatu gabea. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketa edo eragiketak idatzi gabe.
1	Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

20. galderaren analisia	
Edukiak	Zenbakiak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

- 21.** Mirenek ur botilak erosi ditu, eta denera 6 euro ordainduko ditu. 1 €-ko edo 2 €-ko zenbat txanpon erabiliko ditu ordaintzeko? Osatu ezazu taula; idatzi posible diren aukera guztiak.

	 1 €-ko txanpon kopurua	 2 €-ko txanpon kopurua
1. aukera	6	0
2. aukera	4	1
3. aukera	2	2
4. aukera	0	3


Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Aukera 1 edo 2 erantzun baditu ongi.
1	3 aukera erantzun baditu ongi.
2	4 aukerak erantzun baditu ongi.

21. galderaren analisia	
Edukiak	Neurriak
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	2
Galderaren zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

22. Ikasleak “ezkutuko altxorren” jokoan ari dira.

Begiratu bideen planoari. Ikasleak puntu moretik atera dira altxorra aurkitzeko. Jarraitu pista hauei:

- Lehenbiziko bidegurutzera iristen ari dira.
- Eskuinera biratu eta bidean aurrera jarraitzen dute hurrengo harriraino.
- Aurrera egiten dute biratu gabe eta, hurrengo bidegurutzera iristean, ezkerrera egiten dute.
- Aurrera jarraitzen dute hurrengo bidegurutzeraino, eta hantxe dago altxorra.



Zein harritan dago gordea altxorra?

- A. 1. harrian dago.
- B. 2. harrian dago.
- C. 4. harrian dago.
- D. 5. harrian dago.

22. galderaren analisisia	
Edukiak	Geometria
Prozesu ebaluatua	Aplikatzea eta aztertzea
Puntuaziorik handiena	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia